

# SCIENCE KAITZA

DEIALDIAREN OINARRIAK

**ADltech**

COORDINADOR SINAI  
Sistema Navarro de I+D+i



Interes sozialeko proiektua da,  
MECNA zigiluarekin aitortua.



Kultura zientifikoa, teknologikoa eta  
berrikuntzakoa sustatzen duen proiektua.



Proiektu-bultzatzailea Nafarroako  
Gobernuko Garapen Ekonomiko eta  
Enpresarialeko Departamentua da,  
Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu  
Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren  
bidez.

## DEIALDIAREN OINARRIAK

### III. LEHIAKETA ZIENTIFIKOA SciencEkaitza

1. Atarikoa
2. III. Lehiaketa eta Gala
3. Sariak eta kategoriak
4. Parte hartzeko baldintzak
5. Hautagaitzen aurkezpena
6. Balorazio irizpideak
7. Hautapen prozesua
8. Alderdi formalak

# 1. ATARIKOA

Oinarriotako edukia aldatu egin daiteke, COVID-19aren pandemiak sortutako beharrek eraginda eta osasun arloko neurri orokorrek ere eraginda.

Argibideak:

ADltech – COORDINADOR SINAI · C/ Tajonar, 20 · 31006 Pamplona (Navarra)

T +34 948 29 31 30 · info@sciencekaitza.com

Ikerketa, garapena eta berrikuntza funtsezko zutarriak dira bere lurraldearen garapen sozial eta ekonomikoa lortu nahi duen eskualde ororentzat. Arlo horiek sendotzera bideratzen diren politikek aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeaz gain, lagungarriak dira jakintza eta teknologiak sortzeko, eta gizartearen erronkei eta premiei irtenbideak sortzen laguntzeko.

Ikerlari eta teknologoek hezurmamitzen dute I+G+b arloa, eta hala ere, horiek oro askotan ahaztuak gelditzen dira beren eskualdearen garapenaren alde egin duten lana eta ekarpena aitortzerakoan.

Hori dela eta, SciencEkaitza Sari Zientifikoak lagungarriak dira Nafarroan ikerketalanean ari diren zientifikoek eta teknologoek aitortza publikoa eta soziala sustatzeko, eta haien proiektuak irmo babesteko. Antolatzailea ADltech Corporación Tecnológica da, eta laguntzaileak, berriz, Nafarroako Gobernuak eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa; halaber, bestelako entitate publikoek zein pribatuen babesa dute.

Bi-biak, zientzia eta teknologia, jendearen bizitza blaitzen duten arloak dira, eta bi-biek gure etorkizuna baldintzatzeaz gain, funtsezkoak dira bai gizartearentzat bai jendearentzat, eta beraz, eskualdeko ekonomiarentzat ere bai. Hori dela eta, garrantzitsua da gizarte osoak, eta nafar gizarteak bereziki, aintzat hartzea bere komunitatean egiten den ikerketa, eta gauza izatea bere aurrerapen eta garapen teknologikoak lotzeko pertsona bakoitzaren ongizate partikularrarekin.

ADltech Corporación Tecnológica, Nafarroako Gobernuarekin eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekin elkarlanean, SciencEkaitza Sari Zientifikoaren hirugarren edizioaren deialdia egin du.

Sariak ikerlari eta teknologo taldeen lana aitortu nahi dute, eta aitortu ere, Nafarroako eta beste komunitate eta herrialde batzuetako ekonomia eraldatzeko ahalmen handieneko ideiak nahiz ideiarik berritzaileenak.

Halaber, SciencEkaitza Sariak bestelako helburuak dituzte, hala nola ikerketarako eta berrikuntzarako interesa sustatzea, gizartean kultura zientifikoa bultzatuz, zientziak eta berrikuntzak dakartzaten onurak erakutsita.

Aurreko edizioetan bezala, SciencEkaitzaren funtsezko osagaiak bi dira: **lehiaketa zientifikoa**, Oinarriotan araututakoa, eta **Gala zientifikoa**.

Ekitaldi nagusian, hau da, III. SciencEkaitza Galan, ideia eta proiektu nabarmenendako sariak emanen dira lehiaketako kategoria bakoitzean.

### 3.

## SARIAK ETA KATEGORIAK

SciencEkaitza Sariak nazioarteko aitortza eta omena daukate.

SciencEkaitza Sarien bidez, Nafarroan garatzen diren zientzia eta teknologiak bultzatu nahi dira. Halaber, bokazio berriak sustatu nahi dira, eta gizartearengana hurbildu jendearen bizi-kalitatea hobetuko dituzten garapenak.

Era nabarmenean aitortzen dira beren arloaren barnean mugaldeko ezagutza sortzen duten ideia disruptiboak.

Oinarri hauen arabera aurkezten diren hautagaitza guztiek kategoria hauetako batean parte hartzeko aukera izanen dute:

- **SE2021\_SINAI.** Burutzen ari diren elkarlanerako proiektuak aitortzea, betiere Nafarroako Espezializazio Adimentsuan (RIS3) bilduta dauden 6 alor teknologikoetako batean kokaturik daudenak.
- **SE2021\_IDEIAK.** Nafarroako ideia disruptibo eta elkarlanerako ideia berrirentzako saria da.
- **SE2021\_OPEN.** Nazioarteko ideia disruptibo berrientzako saria da.

Gainera, aurkezten diren hautagaitza guztiek batera eta berdintasunez izanen dute kategoriako saria eskuratzeko aukera:

- **SE2021\_PUBLIKOA.** Publikoak SciencEkaitza lehiaketaren webaren bidez gehien bozkatzeko duen proiektua.

Horrela, III. SciencEkaitza Sarietako edozein kategoriatara aurkezteko, hautagaitza guztiek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte, bai eta berariazkoak ere, zer kategoria zehatzetan aurkezten diren.

**a. Baldintza orokorrak.** SciencEkaitza2021 Lehiaketan aurkezten diren hautagaitza guztiek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- Ideiek bikaintasuna, egingarritasuna eta eragina konbinatu behar dituzte.
- Ideiek ez dute zertan egonik merkatutik oso hurbil epe laburrean (baina baldin badaude ere, ez dira baztergarriak izanen).
- Ideiak, halaber, sorkuntzatik eta berrikuntza zientifikotik eta/edo teknologikotik planteatu behar dira.
- Hautagaiek beren ideia, helburuak, eragina, etab. azaltzeko aukera dute, HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO 5. puntuan jasotakoarekin bat.
- Lehiaketa honek Nafarroako garapen sozioekonomikorako eragin berritzaile handia izan dezaketen IDEIA disruptiboak eta eraldatzaileak saritzen ditu.

**b. Berariazko baldintzak.** Gainera, hautagaitza bakoitzak berariazko baldintzak bete beharko ditu, zer hautagaitza zehatzetan aurkezten den:

#### SE2021\_SINAI KATEGORIA

- Taldeak gutxienez bi kidez osatuta egonen dira: SINAI-Nafarroako Berrikuntza Sistemako bi agente ezberdinekoak izan behar dute.
- Taldekide guztiek Nafarroan garatu behar dute beren ikerketa-jarduera.

· Aurkezten diren ideiak burutzen ari diren proiektuak izanen dira, 2019ko eta/edo 2020ko deialdietan finantzatuak, Nafarroako Gobernuako Elkarlanerako Proiektuen modalitatean.

#### SE2021\_IDEIAK KATEGORIA

- Taldeek gutxienez bi entitateren lankidetzan planteatu beharko dute eta, gutxienez, haietako bat SINAI-Nafarroako Berrikuntza Sistemako exekuzio agente bat izanen da.
- Enpresek zilegi dute parte hartzea.
- Taldekide guztiek Nafarroan garatu behar dute beren ikerketa eta/edo enpresa jarduera guztia.
- Egungo irtenbideak ahaztu eta irtenbide erabat berriak planteatzen dituzten ideiak dira xede, gure gizartea, gure ekonomia eta bizi-kalitatea hobetze aldera. Ideiek gizarteak dituen erronka handiei egin behar diete aurre, dela energian eta energia biltegitatzeko arloan, dela osasunean eta egun moldatzeko gauza ez garen gaixotasunetan, dela zahartzean eta biztanleriaren hazkunderan, dela gure planetaren babesean, dela elikadura baliabideetan eta garraio jasangarrian, dela ekitatearen eta bizitzaren baldintzen hobekuntza, eta beste erronka batzuetan.

#### SE2021\_OPEN KATEGORIA.

- Hautagaitzak nahi bezala osatzeko aukera dago.
- Aurkezten diren hautagaitzak entitate batez edo hainbatez osatua egoten ahalko da.
- Edonolako entitateak, ikerketa taldeak, enpresak, unibertsitateak, teknologia zentroak, ikerketa institutuak eta abar izan daitezke kide hautagaitzetan.
- Entitate parte-hartzaileek edozein kokagune geografikotan, autonomia erkidegotan edo herrialdetan garatzen ahalko dute beren ikerketa jarduera.

## 5.

# HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

Proiektuak aurkezteko epea **2020ko abenduaren 11ko (ostirala) 11:00etan ireki eta 2021eko maiatzaren 14ko (ostirala) 12:00etan bukatuko da.**

2021eko maiatzaren 14ra arte, proiektu guztiek beren hautagaitza jakinarazten ahalko dute, posta elektronikoko bat **concurso@sciencekaitza.com** helbidera bidaliz. Hautagaitza bakoitzak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, dela posta berean erantsirik, dela horretarako egokitu den deskarga bidea adierazita, hau guztia barnebilduta:

- Izena emateko **galdetegia**.
- **Idea azaltzeko txostena** ingelesez (gehienez, 10 orrialde). Txostenak honakoekin lotutako alderdiak bildu beharko ditu ongi:
  - Ideiaren deskribapena.
  - Orijinaltasuna eta izaera berritzailea.
  - Bideragarritasun teknologikoa.
  - Egingarritasuna.
  - Ideia proiektu egingarri bihurtzeko beharrak.
- **Txostenaren laburpena**. Ingelesez, gaztelaniaz eta/edo euskaraz gehienez, (200 hitz).
- **Bideoa** (minutu bat, gehienez), taldeak proiektuaren funtsa sormenez azaldu dezan eta publiko orokorrak ulertzeko moduan, betiere ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko narrazio tresnak erabilia. Bideoaren lokuzioa gaztelaniaz eginen da eta bideo beraren 3 bertsio aurkeztuko dira, "Marketin Inklusiboaren" baldintzekin bat:
  - Gaztelaniaz azpidatzirik.
  - Euskaraz azpidatzirik.
  - Ingelesez azpidatzirik.

Oraindik zehazteko dagoen datan, CLAVNAko profesionalek **IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA LANTZEKO LANTEGI** bat emanen diete doan ikerketa taldeei, ikus-entzunezko narrazio tresna eta ereduak ikas ditzaten, beren zabalkundeko bideoak prestatze aldera.

Proiektu irabazleen bideoak III. Gala Zientifikoan emanen dira. Era berean, bideo guztiak jendaurrean jarriko dira ikusgai hainbat bitarteko/euskarriren bidez, gala aurreko eta ondoko egunetan.



## 6. BALORAZIO IRIZPIDEAK

7. puntuak zehaztu duen bezala, Ebaluazio Teknikorako Batzordeak eta Nazioarteko Epaimahaiak **eduki zientifikoari, originaltasunari, izaera berritzaileari, eta bideragarritasun teknologiko eta komertzialari** begiratuko dio hautagaitzak baloratzeko. Honatx zer alderdi hartuko diren kontuan:

- **Taldea:** taldearen osaera.
- Haien arteko lankidetzak bultzatu eta eragin duten sinergien gaineko **azalpen laburra** (gehienez, orrialde bat).
- **Berrikuntza eta orijinaltasuna:** proposamenaren berrikuntza maila eta interes zientifikoa. Etorkizunean egiazki gauzatzeko aukera. Eragin soziala eta ekonomikoa.
- **Sormena** zabalkunde zientifikoko proposamenean, ikus-entzuzko formatuan: Ideia horren eraginkortasuna, ikuslearengan eragina eta oroitzapena sortzeko.
- **Egingarritasuna:** Balio katea eta negozio eredu posiblea. Ideia gauzatzeko behar diren baliabideak eskura izateko gaitasuna edo aukera. Proiektua zer sektoretan kokaturik dagoen, sektore horri ekarriko liokeen balio disruptiboa.
- **Proposamenaren ikerketa bikaintasuna:** Baloratuko da ikerketan genero dimentsioarekin lotutako aldagaiak eta alderdiak kontuan hartu direla ideiaaren definizioan.

# 7.

## HAUTAPEN PROZESUA

Bi organo arduratuko dira hautagaitza guztiak kudeatzeaz eta akzesitak nahiz III. SciencEkaitza Saria aukeratzeaz. Hona organoak:

**1. Ebaluazio Teknikorako Batzordea.** Kide izanen dira ADItechedo Zuzendaritza Nagusia, ADItechedo Lankidetzak Teknologikoko eta Bikaintasuneko Zuzendaritza, eta ADItech Corporación Tecnológica 5 patrono eta CLAVNA Nafarroako ikus-entzunezko clusterreko 2 kide. Batzorde hau honako arduratuko da.

**a. Hautagarritasunaren azterketa eta atariko balorazioa.** Behin aurkezpen epea itxita, hautagaitzak berrikusiko dira, oinarrian azaldutako partaidetza-irizpideak betetzen dituztela baieztatzeko. Oinarriekin bat ez datozen hautagaitzak prozesutik baztertuko dira; gainerakoak hurrengo fasera pasako dira.

**b. Rankingak kategoriaren arabera prestatzea.** Emandako informazioaren bidez berrikusi, ebaluatu eta sailkatuko dira hautagaitzak.

**2. Nazioarteko Epaimahaia.** SciencEkaitza Galako bi hizlarik osatua. Talde irabazlea zein den erabakiko du eta sektore bakoitzeko akzesita.

OHARRA: Nazioarteko Epaimahaiko kideek epaimahaikide izaterik ez badute, ebaluazio teknikorako batzordea arduratuko da azken saria erabakitzeaz.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina da eta **SciencEkaitza Nafarroako III. Gala Zientifikoan** jakinaraziko da jendaurrean.

## 8. ALDERDI FORMALAK

Sariak formalki ADItech Corporación Tecnológica-k emanen ditu, eta Nafarroako Gobernuak eta babesle gisa parte hartzea lagundu nahi duten beste entitate batzuek ere bai.

### **a. Konfidentzialtasuna.**

Prozesu osoan bermatuko da aurkezten diren hautagaitzen konfidentzialtasuna. Horretarako, Konfidentzialtasunezko Akordioak egingen dira epaimahaikide guztiekin.

Nolanahi ere, hautagaitzen ezaugarri orokorrak zabaltzen ahalko dira eta, bere garaian, proiektu irabazleen izenak, bakoitzaren logoa, jarduera eta lorpen nagusiak, bai eta talde sustatzailea osatzen duten kideen izenak ere.

### **b. Jabetza intelektualerako eskubidea eta irudi eskubidea.**

SciencEkaitza 2021 Lehiaketara aurkezten diren unean, hautagaitzek ADItech Corporación Tecnológica-ri lagako diote aurkezten dituzten ikus-entzunezko materialak erabili, itzuli, editatu, erreproduzitu eta jendaurrean ordainketarik gabe zabaltzeko eskubideak, bai eta eratorritako edukia sortzeko ere.

Talde bakoitzak egindako bideoak ematen ahalko dira, hautagaitza finalisten hedapen eta aurkezpena egiteko material gisa.

SciencEkaitza 2021 Lehiaketara hautagaitza batean aurkezten diren ikerlariak hautagaitzaren bideoko edukien gaineko irudi eskubideak lagako dituzte, bai Sariari Banaketan eta Galan gonbidatu gisa parte hartzen dutenean, bai SciencEkaitzako ikerlari/lehiakide gisa, lotura duten beste ekitaldi batzuetan parte hartzen dutenean.

Aipatu ekitaldira joaten diren parte-hartzaileei argazkiak egiten ahalko dizkiete edo bideoan filmatzen ahalko dituzte. Material hori ADItechek erabiltzen ahalko du bai ikus-entzunezkoetan eta/edo SciencEkaitza ekitaldia ilustratzeko irudietan, eta halaber, sare sozialetan erabili, editatu eta zabaltzen ahalko da, edota Lehiaketaren irudia zabaltzeko beste xede batzuetarako, bai edizio honetan bai hurrengoetan.

Lehiakideek baimena ematen diote ADItech Corporación Tecnológicari beren izena eta lana garatzen duten lantokiak erabiltzeko, eta baimena halaber, argazkiak baliatzeko eta hautagaitzak etorkizunean eginen dituen ekintzen gaineko informazioa emateko.

Datuak ematean, proiektuak BERARIAZ ONARTZEN DITU arestian aipaturiko lagapena eta tratamendua. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta haien aurka jotzeko eskubidea erabil daiteke, posta elektronikoko bat **concurso@sciencekaitza.com** helbidera bidaliz edo ADItecheko bulegoetara joanez, NANaren fotokopia bat eramanda. Taxoare kalea, 20. 31006 Iruña (Nafarroa).

### **c. Izendapenen publizitatea.**

Talde irabazleek izaera horren gaineko publizitatea egiten ahalko dute idazpuru, iragarki eta txostenetan, eta era berean, Sariak jaso izana argitaratu edo hedatu edozein hedabidetan.

Aipatu komunikazioetan SciencEkaitza aipatu beharko da espresuki marka gisa, zer urtetan izan ziren sarituak zehaztuta, eta halaber, ADItech Corporación Tecnológica aipatuta, ekitaldiaren sustatzaile eta antolatzaile gisa.

Kategoriaren izen osoa adieraziko da, oinarriotako 4. atalean zehaztutakoarekin bat.

Nafarroako Gobernuak eta ADItechek talde irabazlearen, akzesiten eta izendatuen publizitatea eginen dute behar bezala, betiere egoki eta beharrezkotzat jotzen diren hedabide nazionaletan eta/edo eskualdekoetan, eta era berean, berrikuntza arloan bikaintasunari nahiz jardunbide egokiei buruzko adibideak behar diren plataforma guztietan.

### **d. Oinarriak onartzea.**

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarri guztiak onartu beharra; haien gaineko interpretazioa fase bakoitzeko epaimahaiari dagokio.

Oinarriotan adierazitako epeak eta prozedurak betetzen ez badira, parte-hartzaileari sariak gozatzeko aukera kenduko zaio.

**SCIENCE**  **KAITZA**